

## KOSTALDEKO TOPONIMOAK GAZTELUGATXEKO SAN JUANETIK OGOÑORARTE

ANTON ERKOREKA

Duo eta Markaidaren ostean, Bizkaiko kostaldeko toponimoarekin jarraituz, Bermeoko udalerrira heltzen gara. Bertoko berriemaileen datoak argitaratuko ditut, gehienetan hitzez-hitz, planoetan eta lan batzuetan agertzen diren izenak baztertu gabe.

Bermeoko lurretan sartzen garenean penintsula ikusgarri bat aurkitzen dugu:

130.— *Gaztelugatxeko San Juan* edo zaharrak esaten duten moduan *San Juan Gaztelugatxekue* (*Gaztelugatxeko*). Mende honetako texto eta inskripzio batzuetan *Doniene*-lez agertzen da.

Erdi aroko texto zaharretan *San Juan del Castillo* (1053. urtea) edo gehienetan *San Juan de la Peña* (1071 eta beste urte batzuetan) (1).

Toponimo honeri buruz dagoen interpretazio garrantzitsuenak bi dira: egile askorena, heuren artean J. M. Markaidana (2), *Gaztelu aitz* edo *Gazteluko aitz* (peña del castillo) eta Iturriza eta Caro Barojanak *Gaztelu gatx* (castillo áspero).

131.— *Muserratz*. Penintsula honen azpian, iparraldetik, dagoen haitz edo irlatu bat.

132.— *San Juan eta Akatx arteko senaije*.

133.— Bakiotarrak itsasbazter honeri *Sanjoalde* esaten diote.

134.— *Akatx*, *Aketx*, *Akatxe*, *Aketxe*. Senadi honen ekialdean dagoen irla.

135.— *Akatzpie*. Uharte honen oinarriari deitzen zaio.

136.— *Atatalle*, bakiotarrak *atetalle*. Irlaren aurrean dagoan lurmuturra.

137.— *Punta Ermua*-lez *Atatalen* alboan dagoen lurmutur txiki bat agertzen da «Instituto Geográfico y Catastral»eko mapan (I.G.C.).

138.— *Ermupe*. *Matxitxakorantz* dagoen senadia eta itsas ertza. Izena goiko aldean dauden baserri biren izenetik datorkio. Baserriak *Ermu* deitzen dira.

139.— *Baretaldi*. Bakiotarrak Atatalletik *Matxitxako*arteko itsas ertzeari.

140.— *Matxitxako*. Bermeoko arrantzale batzu eta lurmutur famatu horretan bizi diren baserri zaharrak *Matxakú* esaten diote eta asko gutxiago *Matakú*. Kostaldeko beste herrietako arrantzaleak ere antzeko izena ematen diote lurmutur ezagun honeri: *Matxako* mundakakoak (3), *Matzaku* ondarrutarrak (4), etab.

Historia aldetik Delmas-ek (5) diogunetik XIV eta XV. mendeetan bertakoek *Machachaco* esaten zioten; Florián de Ocampo (XVI. mendekoa) (6) *Machicao* esaten zion; Garibay-ek (7) XVI. mende horretan ere *Machazacu* diogu dela eta 1554.eko testamentu baten *Machaçacu*-lez agertzen da (8). XVII. mendetik aurrera oraingo izen ofizialekin agertzen da mapa eta publikazio guztietan, gaztelaniazko ortografiaz: *Machichaco*.

(3) KORTAZAR, Jon: «Mundakako arrantzaleen kalak». - *Etniker* 3 (Bilbo, 1978) 52-74 or. eta *Bermeo* 1 (1981) 219-234 or.

(4) ZUBIKARAI, A.: «Matzaku». - *Deia*, 1983.2.9.

(5) DELMAS, Juan Ernesto: *Gaztelugach con su historia y tradiciones recogidas y escritas por...* - Bilbo, 1888. - 10. or.


(6) OCAMPO, Florián de: *Crónica general...* 1. liburua, 11. kapitulua.

(7) GARIBAY, Esteban: *Compendio historial...* 3. lib., 1. kap.

(8) VALLE, Fernando del: «El cabo Machaçacu». - *RIEV* XXV (1934). - 190-191 or.

(1) ANASAGASTI, Pedro de: «Bermeo en el siglo XI». - *Bermeo* 2 (1982). - 313-321 or. - 316. or.

(2) SARRIA, Juan María: «Gazteluaitzako jaiak». - *Deia*, 1979.6.19.



141.— *Faroa*, bertoko hizketan *Fárua* (zaharra eta berria).

142.— *Talaijje*. Goian, Bermeotik Bakiora doan bide alboan.

143.— *Plantxadiek*. *Matxitxakotik* hegorantz itsas ertza haitz plantxaz egina dago. Hortik datorko izena.

144.— *Sillarri*. Haitz horretan aulki bat molaturik dagoela esaten dute arrantzale batzuk. Baserritarrak, beste alde batetik, etxeak egiteko harrien kantara bat egoela diote (silleri harria: arlandua).

145.— *Nazaretoko puntie*. Berton XIX. mendean lazareto bat egoan kolerazko eta beste eritasunezko gaixoak isolatzeko.

146.— *Potorro arri*, *Potor-arri*. Aurrez-aurre dago haitz bakar hau.

147.— *Kargadero*, *Kargaderoko puntie*. Bermeoko portua eraitzeko erabili ziren harriak, leku honetatik eroan ziren gabarretan.

Kostalde guzti hau aldatu dute, 1983 eta 1984-an, itsasazpiko gasaren hartzeagaitik.

148.— *Harri bolak*, *Harri bolas*. *Kargaderotik*

*Trankilleko atxararteko* itsas-ertza harri ondartzaz beterik dago. Harriok borobilak dira eta hegorantzago goazenean txikiagoak.

149.— *Lurgorri*. Arene hauzoko eskolapeko lurraldeak dira.

150.— *Arbatz*, *Arbaitz* edo *Arrabatze*.

151.— *Galdizko errekie*. Harri bolan azpitik itsasora heltzen dalez, urik ez da ikusten. Lurmuturerantz dagoen baserri baten izena hartzen du. Baserritarrak erreka honeri *Madariko errekie* esaten diote, alboan dagoen baserri baten izena hartuz.

Diccionario Geográfico-Histórico-ak (9) *Valdes* izeneko sei kañoidun gotorlekua aipatzen du. Geroagoko planoetan ere errakuntza hori mantentzen da, esate baterako Instituto Hidrográfico de la Marina-koan (I.H.M.) *Punta Galdes*-legez agertzen da.

152.— *Trankil puntie* edo *sastar lekue*. Orainsturarte bertan egon da *sastar lekue*. I.H.M. eta I.G.C.-ko planoetan *Guibelego* ipintzen dute. Udaletzeko papeletan *Erleko punta*.

(9) REAL ACADEMIA DE LA HISTORIA: *Diccionario geográfico-histórico de España*. - Madril, 1802. - I. tomoa, 168. or.

153.— *Gibelpe, Gibelpie. Gibe*le baserriean dago.

154.— *Trankilleko atxa, Peñadoro, Peña de Oro, Corona del Papa* —dokumentu zaharretan *Peña de Oro* 1644n eta *Peñadora* 1754n (10)—. *Gibelpen* dagoen haitz handi bat da, obispoen mitraren itxuraduna.

Haitz hau oso interesgarria dugu geologiaren aldetik, lurrak ezbardindu egiten dituelako. Lur alde guzti honek Behe Kretaziokoak dira, Bermeorantz Margo Aptense arokoak eta *Matxixako* alderantz dauden lurraldeak Albense arokoak. Aldakuntza hau, kostaldea ikusiaz bakarrik nabaritzen da. Honaino itsas-ertza harri ondartzaz beterik dago eta hemetik aurrera akantiladoz.

155.— *Trankilleko baisie*. Inguruen dagoen baixak.

156.— *Mastijjek* akantilado batzuk dira.

157.— *Mastipiek* beko aldeari esaten zaio. Hemen «bañera» bat dago naiz eta bertara heltea zaila izan.

159.— *Aitxatxuko plaijje*. Bainua artzeko *helxatxuko islie*-k hondartza txiki bat formatzen du:

159.— *Aitxatxuko plaijje*. Bainua artzeko eltzen direnak bazter guztiei eman dizkiote izen bereziak. Esate baterako: *Aspo andi* eta *Aspo txiki* atxa nagusiaren barne aldetik sartze bi dira; *Bañerie/La bañera* irlaren istmoan dago; *Jaguai* (Hawai); *Panama*; *Tortugas*; *Enbarkaderué*; *El lago* eta abar.

160.— *Tonpoi andijé* eto *tonpoi nagosijé*.

161.— *Tonpoi bijjen erdijje*.

162.— *Tonpoi txikijé*.

Espainiar testu eta planoetan agertzen diren errakuntzekin jarraituz aipatutako Diccionario Geográfico-Histórico-ak *Trompon* izena argitaratzen du.

163.— *Ugerri* edo *Bermeoko ugerrije*: *Tonpoi* txikiaren muturra eta bertako haitzak dira. I.H.M.-ko planoetan *punta Uguerrey* eta *islote Ugarrarri* ipintzen dute. 1754.n urtean *Uguerri* eta *Oguerria* (11).

164.— *Talie. Tala*.

165.— *Talape, Talapie, Talaspe, Talaibe* urrengo senaditxua da.

166.— *Talako punte*. I.H.M.-ko planoan *Punta Atalaya*.

167.— *Bastarre*: hirigunearen bazter bat da. 1598ko dokumentu batek ere aipatzen du «paraje sobre la mar» dala esanez. 1676an *Basterra*-lez agertzen da (12).

168.— *Frantxunatxak, Frantxunatxes. Bastarre* azpiko atxei, gaur egun lonjak dauden tokikoiei, esaten zioten.

169.— *Santa Klara. Bastarre* azpian ere egon ziren haitz hauek. Izena, aintzinako ermita batena da, eta oraindik eskilara batzu daukate. XIX. mendeko dokumentu baten: *Peñas de Santaclaraoste* (13).

170.— *Bañolekue. Frantxunatxatan* eta *Rompeolas* hasten dan lekuan, bainoak hartzeko tokiak egoten ziren: horregaitik izen hori.

171.— *Rompeolas*: portu zaharraren ekialdetik eraikitzen da. Honen erdi-erdian eta barrurantz *espigoie* dago.

Alde honetan, erdi itsasoan erdi legorrean diren atxak izen desberdinak daukate (172-176):

172.— *Lemajjaliek*.

173.— *Laisuek*. 1905ko plano baten *Llaisuas*. I.H.M.-ko planoan *piedras llaisuas* eta *Tala puntan* aurrean *Leichuech* u *Otzarri*.

174.— *Otzarri* I.H.M.-ko planoan.

175.— *Salbatxe. Ronpeolas* eta *Frantxunatxen* artean dagozenak. 1754n «los escollos de *Salbai-che*, en la entrada de la bocana del puerto (14). 1905-ko planoak *Salveach* eta I.H.M.-koak *Salve-ach*.

176.— *Bonitoach* 1905-ko planoan. *Boniatx*.

177.— *Bokalá*: portu zaharraren ahoa.

178.— *Arreviribil* 1855-ko planoan, *bokalan* Santa Eufemia azpian.

179.— *Gaztelu*. Portu zaharraren sarreran.

180.— *Gaztelupe*.

181.— *Portu sarrá*.

182.— *Torrontero*. Portu zaharraren gainean dago.

183.— *Artza, Arza*. Errekaren urak itsasorazten dan lekua. Lehen harri-hondartza bat zen.



(10) SESMERO, Francisco: «Tres siglos de toponimia bermeana. - *Bermeo (Fiestas)* 1971. - 4. or.

(11) SESMERO: *Op. cit.*

(12) *Ibid.*

(13) ZABALA ETA OTZAMIZ-TREMOYA: *Historia de Bermeo*. - 2. tomoa. - Bermeo, 1931. - 425. or.

(14) SESMERO: *Op. cit.*



184.— *Erribera*: Bermeoko erreka gehienak biltzen ziren tokia da (15).

185.— *Ondarraburu*. *Erriberan* gainean egon zen. Gaur kale baten izena da.

186.— *Ondarre*. Aintzinako errota bat. 1622-ko dokumentu baten *Ondarra*-legez aipatzen da (16).

187.— *Arenondo*: gaur egun erreka eta baserri baten izena da.

188.— *Orrotza*: Almikeko eta Artikeko erreka batzen diran lekuan dago (17).

189.— *Tala txikijje* edo *lamera txiki*: trenaren estasioaren alboan egon zen lurmuturra.

190.— *Kurtzioko errekie* edo *Sarreneko erreka*ren itsasoratzea.

191.— *Txibitxa* eta *Txibitxaga*.

192.— *Matxikorta*: gaur egunean portuko nasaia, trenbidea eta Campsa-ko depositoa dauka. Horregaitik generalki *kansa* esaten zaio paraje guztiari.

193.— Lur alde guzti hori *portue* edo *portu barrijje* esaten zaio. *Kansa* aldetik *farol gorrijje-gaz* eta portu zahar aldetik *farol berdie-gaz* mugatzen da portua.

194.— *Santa Klara*: *Matxikortatik Errosape*-rainoko haitzak izan ziran.

195.— *Portu buru*: goiko aldea. 1510eko dokumentu baten aipatzen da eta 1744koan *Chivichaga* eta *Portu buru* sinonimoak direla ipintzen du (18).

196.— *Errosape*. Errekatxo bat itsasoratzen da hemen. Lehen baseliza bat (*Errosa/La Rosa*) egon zen. Puntu hortan mugatzen dira Bermeo eta Mundakako herriak. Bertan, eta Mundakako aldetik, arrain uruna egiten duen lantegi bat dago, *Alfa*, eta izena zabalduz horrela izendatzen da inguru guztia.

1756-eko dokumentu baten «*Errosape*: playazo de piedra bajo *Lamiaren*» (19). I.H.M.-ko planoan «*Cala y punta de las Rosas*» eta «*Faro de Rosape o de las Rosas*».

197.— *Lamera punte*, *Lamera puntie*: Izen hau *Lamiaren punta*-ren kontrazio bat da. Bertotik hasi da Bermeoko portuaren kontradike berria.

(15) Ikusi plano. BASTERRETxea, Joseba Andoni: «Evolución del puerto». - *Bermeo* 1 (1981). - 142-143 or.

(16) SESMERO: *Op. cit.*

(17) Hiriguneko toponimoak, baserrien izenak eta kostaldeko batzu ere aldizkari honetan argitaratuta daude. ERKOREKA. Anton: «Etnografía de Bermeo / Grupo doméstico I /» A.E.F. XXV (1973-74) 178-186, 161-162 eta «Etnografía de Bermeo. Higiene, distracciones y juegos infantiles» A.E.F. 29 (1980) 132-133.

(18) SESMERO: *Op. cit.*

(19) *Ibid.*

Mundekarrak *Lamijjan puntie* esaten zioten Jon Kortazaren lanan (20) agertzen danetik. Hemen-dik aurrera biltzen diren toponimo batzu beronen lanatik hartuko ditut.

198.— *Mundekako ugerrijje* (*Mundakako Ugarrri*). I.G.C.-ko planoan *Punta Ugarrri*.

199.— *Burgó txikijje* Bermeoko arrantzaleak eta *Murgu txikijje* mundekarrak.

200.— *Burgó nagosijje* eta *Murgu nagusijje* Bermeotarrak eta Mundekarrak. I.G.C.-ko planoan *Punta Margoa*. I.H.M.-koan *Punta e Islotes Burgua Menor* eta *Punta e Islotes Burgua Mayor*.

201.— *Ondartza*.

202.— *Ondartzape*, *Ondartzapie*: *Burguaren* ondoan dagoen hondartza txikia.

203.— *Kañaberapie*.

204.— *Solopeko atxak*.

205.— *Sastar lekue* (Mundakakoa).

206.— I.H.M.-ko planoan *Punta de Santa Catalina*.

207.— *La Barra*. I.H.M.-ko planoan *Punta de la Barra*.

208.— *Portue*.

209.— *Tala*.

210.— *Kasetatzie*: «Mundakako Talan karabieren txabola bat egoan, horrenpean dago lekua».

211.— *Elisatxie*, *Elisatze*: elizaren atzean edo pean.

212.— *Bañerape*, *Bañerapie*: «Mundakako elizaren alboan etxe bat dago, eta hor urberoko bainoak hartzen direlako (zirelako), *bañera* deitua da».

213.— *Errerape*, *Errerapie*: Elizearen ondoan dagoen txaletatik hartzen du izena.

214.— *Txorroko punte*, *Txorroko puntie*.

215.— *Laidatxu*: Mundakako hondartza.

216.— *Arrospe*.

217.— *Portuondo*.


218.— Itsasadarraren aurrez-aurre eta beren ahoan hondartza eder bat: *Laida*, *Laidé*, *Laidié*.

219.— *Ikopie*.

220.— *Antzorá*: Ibarrangeluago auzune bat da.

221.— Bere alboko itsas ertzeari *Antxorapie* deitzen zaio.

(20) KORTAZAR: *Op. cit.*



222.— *Atxa kondenadue.*

223.— *Lemajjale: Otxarri eta Antzora puntan artean dagozen haitzak. Kortazaren lanan Lemajalie. I.H.M.-ko planoan Lemaxalia.*

224.— I.H.M.-ko planoan *Punta Agane.*

225.— *Lagá: Ibarrangeluko beste hondartza eder bat.*

226.— *Deskomulgaitz: Ogoño azpian dagoen haitz handi bat.*

227.— *Peña Esponja.*

228.— *Popular.*

229.— *Artapie.*

230.— *Ogoño: Lurmutur ezaguna.*

231.— *Matxitxako eta Ogoño urkolko handi baten mugak dira. Erdialdean Izaro edo Isaro izeneko irla bat dago. Luzeran 534 m., zabaleran 117 m. eta garaieran 45 m. ditu.*

232.— *Iparreko muturrari Artxikote puntie esaten zaio.*

233.— *Ipar-ekialderantz islote txiki bat dago, Potorro arrije edo Potorrarri andije izenekoa. Erreferentzi batzutan Arriederra edo Arrieder-lez agertzen da, beste batzuetan (I.H.M.-ko planoan adibidez) izen eta leku biak bereiztu arren.*

234.— *Ego-ekialderantz Potorro arri txikijje edo Potorrarri txiki izendun haitzak daude.*

235.— *Plantzadie: Izaroko ego-ekialdeko itsas ertzea.*

236.— *Madalenape: mendebaleko kostaldea, Madalena izaneko baselizan azpian dagoen itsas-bazterra.*

237.— *Izaro eta Antzora tartean baixa batzuk daude, mari-beran azalean ikusten direnak eta mari-goran berriz urperatuta gelditzen direnak. Heuren izena Otxarrijjek, Otxarrijje, Otxarri edo Otxarri.*